

Sin./Fdo.: ANA BELEN BARAHONA VEGA 2024-05-08
LAN ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ETA LAN OSASUNERAKO ZERB. BURUA
JEFE/A SERVICIO DE PREVENCIÓN DE RIESGOS Y SALUD LABORAL

Sin./Fdo.: ESTHER GONZALEZ DE AUDIKANA URZELAI 2024-05-08
FUNTZIO PUBLIKOAREN ZUZENDARIORDEA
SUBDIRECTOR/A DE FUNCIÓN PÚBLICA

Sin./Fdo.: CESAR GONZALEZ DE HEREDIA MARURI 2024-05-08
ARAUBIDE JURIDIKOAREN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN ZUZEND. NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE RÉGIMEN JURÍDICO Y FUNCIÓN PÚBLICA

Sin./Fdo.: AGER IZAGIRRE LOROÑO - 2024-05-08
FORU DIPUTATUA ETA IDAZKARIA
DIPUTADO/A FORAL Y SECRETARIO/A

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2024-05-16
GZko 4.gaia onartuta - Aprobado, asunto 4) de OD

ERABAKIA, zeinaren bidez onesten baita lan-inguruko sexu-jazarpenaren, sexuan oinarritutako jazarpenaren eta sexu-askatasuna mugatzen duten bestelako jarrerren kontrako ekintzarako printzipioen eta orientazioen adierazpena.

Bizkaiko Foru Aldundiak, Gobernu Kontseiluaren 2024ko urtarrilaren 25eko saioan, onetsi egin zuen lanean sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-askatasunaren aurkako jarrera oro prebenitzeko eta horren aurrean jarduteko protokoloa.

Protokolo hori onetsi ostean, beharrezkotzat jo da Gobernu Kontseiluak 2020ko martxoaren 3an onetsitako Printzipioen Adierazpena berrikustea, bi helburu lortzeko:

Lehenengo eta behin, Bizkaiko Foru Aldundiak arlo horretan hartutako konpromisoa berrestea eta, bigarrenik, konpromiso hori zabaltea egun horretatik aurrera onetsitako araudietan jasotako egoera berrietara, gure testuinguru propioa aldatzen eta bilakaera bat izaten ari denaren seinale direnak.

Horiek horrela, lan-inguruko sexu-jazarpenaren, sexuan oinarritutako jazarpenaren eta sexu-askatasuna mugatzen duten bestelako jarrerren kontrako ekintzarako printzipioen eta orientazioen adierazpena onesteko eskatzen da, Bizkaiko Foru Aldundiaren Negoziazio Mahiak eztabaidatu eta onetsi ostean.

ACUERDO por el que se aprueba la declaración de principios y orientaciones a la acción contra el acoso sexual, el acoso por razón de sexo y otras conductas contrarias a la libertad sexual en el ámbito laboral.

La Diputación Foral de Bizkaia aprobó por consejo de Gobierno el 25 de enero de 2024 el Protocolo de Prevención y Actuación frente al Acoso Sexual, acoso por razón de sexo y otras conductas contrarias a la libertad sexual en el ámbito laboral.

Tras la aprobación del citado protocolo se estima necesario la revisión de la Declaración de Principios aprobada por Consejo de Gobierno el 3 de marzo de 2020, con un doble objetivo:

En primer lugar, reafirmar el compromiso de la Diputación Foral de Bizkaia en esta materia y en segundo lugar extender este compromiso a nuevas situaciones que quedan recogidas en las normativas aprobadas a partir de esa fecha y que son reflejo del cambio y evolución de nuestro propio contexto.

Por ello, se solicita la aprobación de la Declaración de principios y orientaciones a la acción contra el acoso sexual, el acoso por razón de sexo y otras conductas contrarias a la libertad sexual en el ámbito laboral, tras su debate y aprobación por parte de la Mesa de Negociación de la Diputación Foral de Bizkaia

II

II

Egungo araudian azpimarratutako gaietako bat da enpresek arlo horretan hartutako konpromisoei

Una de las cuestiones remarcadas en la normativa actual es la necesidad de dar publicidad por parte de





buruzko publizitatea eman behar dutela, langileek eta beren aplikazio-eremuagatik arlo horren eraginpean egon daitezkeen pertsonak horren berri izan dezaten.

Azaldutakoagatik, izenpetzen duenak zure iritzipean jarri behar du, Foru Aldundiari aurkez diezaion, hala badagokio, honako proiektu hau:

ERABAKIA

LEHENENGOA:- Bizkaiko Foru Aldundiaren printzipio gidariak onestea, lanean sexu-jazarpenaren, sexuan oinarritutako jazarpenaren eta sexu-askatasunaren aurkako jarreraren esparruan:

1.- Bizkaiko Foru Aldundiak oinarritzko printzipio hauen gaineko errespetua bultzatzen du bere jardueran: duintasuna, berdintasuna, osotasun fisiko eta morala, diskriminaziorik eza, askatasuna eta lana. Printzipio horiek guztiak Europako, Estatuko nahiz EAEko araudian bermatuta daude.

2.- Ondorioz, Bizkaiko Foru Aldundian lan egiten duten pertsonak eskubidea dute beren duintasuna oso-osorik errespetatu dakien eta erakundearen barruan eskubide hori inola ere urratu ez dadin, erakunde honek ez baitu horrelako jarrerarik onartuko.

3.- Plantillako langile guztiek edo foru-erakundean eginkizunak betetzen dituztenek (beren lotura juridikoa edozein izanda ere) lan-inguru segurua izan dezaten, duintasuna eta osotasun fisiko eta morala errespetatu dakien, eta beren osasunean ondore kaltegarriak sortu ez dadin, Bizkaiko Foru Aldundiak irmoki gaitzesten du edozein motatako sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena, edo sexu-askatasunaren aurkako jarrera, modu eta modalitate guztietan, biktima edo erasotzailea nornahi izanda ere eta erakundean duen maila hierarkikoa eta egoera zernahi izanda ere. Beraz, beharrezkoak diren neurriak hartuko dira, bai prebentzio-mailan, bai lege-mailan.

las empresas acerca de los compromisos adquiridos en esta materia de modo que tanto el personal como aquellas personas que por su ámbito de aplicación puedan verse afectadas por el mismo.

Por lo expuesto, quien suscribe, tiene a bien someter a la consideración de V.I., para su elevación a la diputación Foral, si procede, el siguiente proyecto de

ACUERDO

PRIMERO:- Aprobar la declaración de principios y orientaciones a la acción contra el acoso sexual, el acoso por razón de sexo y otras conductas contrarias a la libertad sexual en el ámbito laboral de la Diputación Foral de Bizkaia, concretamente:

1.- La Diputación Foral de Bizkaia en el desarrollo de su actividad tiene como principios básicos el respeto a la dignidad, igualdad, a la integridad física y moral, a la no discriminación, a la libertad y al trabajo, los cuales aparecen garantizados tanto en la normativa europea, estatal como autonómica.

2.- En consecuencia, las personas que trabajan en la Diputación Foral de Bizkaia tienen derecho a que se respete su dignidad en toda su integridad, y a que no sea conculcada dentro de la organización, lo que no será tolerado por la institución foral.

3.- En el ánimo de que todas las personas de la plantilla, o las que realicen o desempeñen funciones en la institución foral sea cual fuese su vinculación jurídica, disfruten de un entorno de trabajo en el que su dignidad e integridad física y moral se encuentren respetadas, y no se vea afectada negativamente su salud, la Diputación Foral de Bizkaia manifiesta su rechazo a todo tipo de acoso sexual, acoso por razón de sexo o conductas contrarias a la libertad sexual, en todas sus formas y modalidades, con independencia de quién sea la víctima o la persona acosadora, ni cual sea su situación ni nivel jerárquico en la organización, adoptando al respecto tanto las medidas preventivas





4.- Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren kontrako tolerantziarik ezaren adierazpen honen bidez, Bizkaiko Foru Aldundiak berariaz azpimarratu nahi du duintasunaren eta askatasunaren kontra doazen jarrerak saihestu behar direla eta horien gainean ahalik eta arinen esku hartu behar dela. Izan ere, bi ideia horiek elementu gakoak dira jazarpen hauen atzean dauden jarrerak ezabatzeko edo, hala badagokio, inplikaturako pertsona guztien gaineko ondorio larriagoak murrizteko, batez ere biktimen artean, eta erakundearen gaineko eragina gutxitzeko.

BIGARRENA.- Honako konpromiso hauek hartzea:

1.- Bizkaiko Foru Aldundiak bere esku dauden neurri guztiak erabiliko ditu lan-inguru segurua eta jazarpenik gabea sortzeko, mantentzeko eta babesteko, erakunde honetako plantillako pertsona guztien eta lotura juridikoa edozein izanda ere foru-erakundearen eginkizunen bat betetzen duten pertsonen duintasuna eta sexu-askatasuna errespetatu daitezen, betiere genero-ikuspegia kontuan hartuta.

2.- Era berean, sexu-jazarpen, sexuan oinarritutako jazarpen eta sexu-askatasunaren kontrako jarrera ororen kontrako arauen eta balioen kultura ezarriko du, pertsonak (gizon zein emakume) tratu berdinean, errespetuzko eta duina jasotzeko duten oinarritzko printzipioa aldarrikatuz.

HIRUGARRENA.- Prebentzio-ekintza hauek sustatzea:

1.- Bizkaiko Foru Aldundiak, sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-askatasunaren kontrako jarrerak gaitzesten dituen politika defendatzeaz gain, jarrera horiek erakusten edo onartzen dituzten pertsonen aurkako zehapen azkar eta irmoaren bidez, kultura prebentiboa sustatuko du bere administrazio-egituretan, prestakuntza, informazioa eta sensibilizazioa lantzeko eta kontzientziaketa eta

necesarias como las legales que, en su caso, procedan.

4.- Esta declaración de la Diputación Foral de no tolerancia contra el acoso sexual y acoso por razón de sexo tiene por finalidad insistir en la evitación de conductas que contravengan la dignidad y la libertad y en la intervención más temprana posible sobre las mismas, siendo los elementos centrales para la eliminación de los comportamientos de estos acosos o, en su caso, para la reducción de las más graves consecuencias sobre todas las personas implicadas, especialmente las víctimas, así como para minimizar el impacto en la organización.

SEGUNDO.- Adquirir los siguientes compromisos:

1.- La Diputación Foral de Bizkaia manifiesta su compromiso para crear, mantener y proteger con todas las medidas a su alcance, un entorno laboral seguro y libre de acoso en el que se respete la dignidad y la libertad sexual de todas las personas de la plantilla de dicha institución y de aquellas que realicen o desempeñen funciones en la institución foral sea cual fuese su vinculación jurídica, incorporando la perspectiva de género.

2.- Asimismo, adquiere un compromiso formal respecto al establecimiento de una cultura organizativa de normas y valores contra el acoso sexual, el acoso por razón de sexo y las conductas contrarias a la libertad sexual, manifestando como principio básico el derecho de las personas –mujeres y hombres- a recibir un trato igual, respetuoso y digno.

TERCERO.- Promover las siguientes acciones preventivas:

1.- La Diputación Foral de Bizkaia, además de mantener una política de no tolerancia del acoso sexual, acoso por razón de sexo y conductas contrarias a la libertad sexual, mediante la sanción rápida y contundente a aquellas personas que practiquen o consientan estas conductas, promoverá una cultura preventiva de acciones formativas, informativas y de sensibilización, así como de concienciación y capacitación en sus estructuras





trebakuntza sustatzeko ekintzen bidez.

administrativas

2.- _Horretarako, beharrezko bitarteko eta baliabideak ezarriko ditu, erakundeko plantilla osoari prebentzioaren gaineko prestakuntza eta informazioa emateko, egoera horiek dituzten arriskuen eta horiek prebenitzeko hartu beharreko neurrien gainean. Era berean, prestakuntza-ekintza espezifikoak sustatuko ditu, egoera horiek goiz antzemateko tresnak eta horietan jarduteko neurriak ezartze aldera

2.- A tal fin, establecerá los medios y recursos precisos para procurar formación e información en materia preventiva a toda la plantilla de la organización, centrada en los riesgos inherentes a estas situaciones y en las medidas a adoptar para su prevención. Promoverá asimismo acciones formativas específicas en orden a proveerlas de instrumentos de detección temprana de estas situaciones y medidas de actuación.

3.- Informazioa eta sensibilizazioa lantzeko, akordio hau sartuko da intraneten, lanean sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-askatasunaren aurkako jarrera oro prebenitzeko eta horren aurrean jarduteko protokoloarekin batera (Atarilekuren orriko espazioa edo sail bakoitzaren intraneten hasierako orriak baliatu daitezke bertara sartzeko). Horrez gain, bertara sartzeko esteka zabalduko zaie, mezu elektronikoa bidez, plantilla osatzen duten pertsona guztiei, esteka hori BFaren harrera-politikan ere sartuta. Halaber, testuaren berri emango zaie enpresa kolaboratzaileei, foru-erakundeetan edo haren instalazioetan lan egiten duten langileen artean hedatzeko.

3.- Para la información y sensibilización además de la inclusión de este Acuerdo junto al Protocolo de prevención y actuación frente al acoso sexual, acoso por razón de sexo y conductas contrarias a la libertad sexual en el ámbito laboral en la intranet, accesible desde un espacio de la página de Atarileku y de las páginas de inicio de la intranet de cada departamento, se distribuirá su enlace por correo electrónico a todas las personas que integran la plantilla, incluyéndose dicho enlace en la política de acogida de la DFB y asimismo se dará a conocer el texto a las empresas colaboradoras, a fin de que le den publicidad entre su personal destinado a desempeñar tareas para la institución foral o en sus instalaciones.

4. Postontzi espezifiko batera sartzeko aukera ere emango da, Atarilekuren orriko espazio baten bidez edo sail bakoitzaren intraneten hasierako orrien bidez. Esteka hori aurreko puntuko elementuekin batera zabalduko zaie, mezu elektronikoa bidez, plantilla osatzen duten pertsona guztiei, BFAko harrera-politikan ere sartuta.

4.- Se habilitará el acceso al buzón específico accesible desde un espacio de la página de Atarileku y de las páginas de inicio de la intranet de cada departamento, y su enlace se distribuirá junto a los del punto anterior por correo electrónico a todas las personas que integran la plantilla, incluyéndose asimismo en la política de acogida de la DFB.

5.- Halako egoeretan jarduteko prozedura hobetzeko, protokoloa etengabe berrikusiko da, aplikatzen den kasuetan antzematen diren hobekuntzetan oinarrituta.

5.- Para la mejora del procedimiento de actuación, el protocolo estará sometido a revisión continuada a partir de las mejoras que vayan detectándose en los eventuales casos en los que se aplique.

6.- Bizkaiko Foru Aldundiak foru-sozietate publiko eta foru-erakunde publiko enpresarialeiei eta foru-fundazioei dei egiten die, protokoloa eta prebentzio-neurriak beren inguruabar zehatzen arabera egokitu eta ezar

6.- La Diputación Foral de Bizkaia insta a las Sociedades Públicas y Entidades Públicas Empresariales Forales y Fundaciones Forales a que, asimismo adopten o adapten a sus circunstancias tanto el protocolo como las medidas preventivas a





ditzaten, urtebeteko epean martxan egoteko.

poner en marcha en el plazo de un año.

LAUGARRENA.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 35. eta 88. artikuluetan jasotakoa betetzeko, ebazpen honen aurrekari gisa eta berau arrazoitzeko balio du Lan Arriskuen Prebentziorako eta Lan Osasunerako Zerbitzuaren txostenak, eta erabaki honi erantsi zaio, behar diren ondorio guztietarako.

CUARTO.- A los efectos previstos en los Artículos 35 y 88 de la Ley 39/2015, de 1 de Octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, sirve de antecedente y motivación a la presente resolución el Informe del Servicio de Servicio de Prevención de Riesgos y Salud Laboral que se incorpora a todos los efectos

BOSTGARRENA.- Bizkaiko Foru Aldundiaren lantokian sexu-jazarpenaren, sexu-jazarpenaren eta sexu-askatasunaren aurkako bestelako jokabideen aurkako jarduteko printzipio eta jarraibideen adierazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea.

QUINTO.- Ordenar la publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia de la presente declaración de principios y orientaciones a la acción contra el acoso sexual, el acoso por razón de sexo y otras conductas contrarias a la libertad sexual en el ámbito laboral de la Diputación Foral de Bizkaia.

SEIGARRENA.- Akordio hau Zerbitzu Orokorretako Zerbitzuei jakinaraztea

SEXTO.- Comunicar el presente Acuerdo, a los Servicios de Servicios Generales.

Lan Arriskuen Prebentziorako eta Lan Osasunerako Zerbitzuko burua/ Jefa del Servicio de Prevención de Riesgos y Salud Laboral: ANA BELÉN BARAHONA VEGA

Funtzio Publikoaren zuzendariordea/ La Subdirectora de función Pública. ESTHER GONZÁLEZ DE AUDIKANA URZELAI

Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren zuzendari nagusia/ El Director General de Régimen Jurídico y Función Pública. CÉSAR GONZÁLEZ DE HEREDIA MARURI.

Aurreko tramitean ezarri denarekin bat, Gobernu Kontseiluari aurkeztu behar zaio/ De conformidad con el trámite precedente, elévese al Consejo de Gobierno

Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatua/ el Diputado Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales. AGER IZAGIRRE LOROÑO.

